

Etxean kontu kantari

Mamutzarrak bezala azeriak edota otsoak bizi dira sehaska kantuetan. García Lorcak hortz berdeak zituen mamu bat aipatzen zuen halako batean.

Haur txikiari esaten zaio hori dena? Haurarentzat besoak, kulunka, erritmo sarkor eta errepikakorra; gurasoentzat, haurren nahigabea uxatzeko formula eta lokartu arazten duen monotonia sarkorra.

Loa-loa

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Loa, loa xunxurunbere.
Loa, loa, masusta.
Aita gurea Vitorian dago,
ama mandoan hartuta
Loo, loo, loo...

Lolito-lolito, lo-lo.
Zuk orain eta nik gero.
Biok batera lo egiteko,
etxean inor ez dago.
Loo, loo, loo...

Tirikitrauki, trauki,
mailuaren hotsa.
Hamalau hargin baino
hoba dot arotza.
Loo, loo,loo...

Lua, lua, lua,
ez "eidazu" lo basuen
Azeri batek jan ez "zagizan"
Bildotsa zarelakuen
Loo, Loo, loo...



Arre- arre mandoko

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Arre- arre mandoko.
Bihar Iruñerako,
Etzi Tolosarako.
-Handik zer ekarriko?
-Zapata eta gerriko.

Oharra: Hankaren gainean, esertzen da haurra. Kantaren erritmoan eragingo da trostan. Haurrak eseri nahi duenean, bizkarra indartzen lagunduko dio.

Ezteiaren gonbidapena

Zubizarreta, I. (2011). *Jolas Molas*. Galtzagorri elkartea.

Honek eta honek eta honek
Bart ezteiak zituzten.
Honek honi zer esan?
Gonbidatzeko hau eta hau.
Gonbidatzaile hau eta hau,
Horra non diren hogeita lau.

Olerkia biko erritmo bizkor-bizkorrean esaten denarekin batera, atzamarrak zenbatu behar dira. Norberak egin behar du lan hori: hatz lodia pasako da beste gainontzeko atzamarrak zenbatzen. Lehenengo lauak zenbatu ostean, konpas bat eskainiko zaio hatz lodiari eta bera bakarrik geratuko da airean, une horretan dantzari. Hogeita lau esatean, hatz bizkorrera iritsiko gara.



Ni ez naiz xomorroa

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien gainetik*. Galtzagorri elkartea.

Ni ez naiz xomorroa
Izanagatik lau begi.
Zatoz, zatoz nirekin
Ez zoazela ihesi.
Tran la rai lai lai...
Bat, bi, hiru... kuku!

Oilo itsuaren jolasa egiten da kanta honek dirauen bitartean. Zapi batez estaltzen zaizkio begiak haur bati eta inguru-minguruan beste haurrek kantatuko diote kanta. Hiru bira eman ondoren, itsua dena bateren bat harrapatzen saiatuko da eta, aldi berean, zein ote den asmatzen saiatuko da.

Senda mina

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Senda mina,
putz urdina.
Joan da, joan da
zure mina.

Senda-senda miriku

Zubizarreta, I. (2007). *Bularretik Mintzora*. Galtzagorri elkartea.

Senda, senda, miriku,
oilo kaka, xiriku.
Amen.
Zu hor eta ni hemen.

Oharra: Hitz magikoak minak sendatzeko. Goxo-goxo ukituz eta putz eginez sendatzen da den



Aztiak zurrin-zurrinka

Zubizarreta, I. (1990). *Aztiak zurrin-zurrinka*. Erein.

Sei aztik, zurrin-zurrin,
erre zuten patata bat.
Sei aztik zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Bost aztik, zurrin-zurrin,
erre zituzten bi erbi.
Bi erbi, patata bat.
Bost aztik zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Lau aztik, zurrin-zurrin,
erre zituzten hiru miru.
Hiru miru, bi erbi, patata bat.
Lau aztik zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Hiru aztik, zurrin-zurrin,
erre zituzten lau makailau.
Lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.
Hiru aztik, zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Bi aztik, zurrin-zurrin,
erre zituzten bost bildots.
Bost bildots, lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.
Bi aztik, zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Azti batek, zurrin-zurrin,
erre zituen sei behi.
Sei behi, bost bildots, lau makailau, hiru miru, bi erbi, patata bat.
Azti batek zurrin-zurrin,
zer afaria zuten bart!

Ezetz nik bezain azkar eta nahastu gabe esan. Hitz jolasak afari absurdo bat kontatzen du, baina aldi berean, desafio bat botatzen dio edonori, azkar eta nahastu gabe esateko.



Behin joan nintzen azokara

Zubizarreta, I. (2010). *Sasi guztien ginetik*. Galtzagorri elkartea.

Behin joan nintzen azokara,
Erosi nuen txakur bat.
Txakurrak uau! Uau!
Nik xaxa berari,
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara,
Erosi nuen txistu bat.
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari,
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara
Erosi nuen txerri bat.
Txerriak kurrin kurrin!
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari,
Eraman nion amari.

Behin joan nintzen azokara
Erosi nuen katu bat.
Katuak miau. Miau!
Txerriak kurrin. Kurrin!
Txistuak fli, fli!
Txakurrak uau, uau!
Nik xaxa berari
Eraman nion amari.

Kanta-kantari, ezetz nahastu gabe esan...